# REGLAMENTO POR EL QUE SE REGULAN LOS PROCESOS DE SELECCIÓN PARA LA CONTRATACIÓN DE PROFESORADO CONTRATADO DOCTOR DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

TEXTO CONSOLIDADO
(Versión vigente a diciembre de 2019)
Aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 7 de septiembre de 2016
Modificado por Acuerdos del Consejo de Gobierno de 27 de febrero de 2019 y de 13 de diciembre de 2019

## CAPÍTULO I

### *Disposiciones generales*

**Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.**

Es objeto del presente Reglamento la regulación, en el ámbito de la Universidad Pública de Navarra, de los procesos selectivos para la provisión de plazas de Profesor Contratado Doctor, en aplicación de lo dispuesto en el Decreto Foral 36/2009, de 20 de abril, por el que se regula el régimen del personal docente e investigador contratado de la Universidad Pública de Navarra.

**Artículo 2. Principios.**

En los concursos públicos para la selección de Profesorado Contratado Doctor quedan garantizados, en todo momento, la igualdad de oportunidades de los aspirantes, el respeto a los principios de mérito y capacidad y el principio de igualdad de trato y de oportunidades entre hombres y mujeres.

**Artículo 3. Adscripción de las plazas.**

Las plazas de profesorado sujetas a las

# NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO KONTRATUPEKO IRAKASLE DOKTOREAK KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUAK ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA

TESTU BATERATUA
(2019ko abenduan indarrean den bertsioa)
Gobernu Kontseiluak onetsia 2016ko irailaren 7ko erabaki baten bidez.
Gobernu Kontseiluak aldatua 2019ko otsailaren 27ko eta 2019ko abenduaren 13ko erabakien bidez.

## I. KAPITULUA

### *Xedapen orokorrak*

**1. artikulua. Xedea eta aplikatzeko eremua.**

Arautegi honen xedea da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren esparruan arautzea kontratupeko irakasle doktoreen lanpostuak hornitzeko hautaketa prozesuak, apirilaren 20ko 36/2009 Foru Dekretuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontratupeko irakasle eta ikertzaileen araubidea arautzen duenak, ezarritakoa aplikatuz.

**2. artikulua. Printzipioak.**

Kontratupeko irakasle doktoreak hautatzeko lehiaketa publikoetan beti bermatuko dira izangaien aukera berdintasuna, merezimendu eta gaitasun printzipioekiko errespetua, eta gizon eta emakumeen arteko tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa.

**3. artikulua. Lanpostuak atxikitzea.**

Arau honek xedatzen duenaren araberako

previsiones de esta norma se convocarán adscritas a uno de los Departamentos Universitarios existentes en la Universidad Pública de Navarra y deberán también ser adscritas a una de las Áreas de conocimiento que se integran en dichos Departamentos.

irakasleen lanpostuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate sail bati atxikita egongo dira deialdian, eta sail horien barruan dauden jakintza arloetako bati atxikita egon beharko dute halaber.

**Artículo 4. Gestión de los procesos selectivos.**

El Servicio de Recursos Humanos es la unidad competente para tramitar los procedimientos de selección previstos en este Reglamento, sin perjuicio de las competencias que en esta materia estén atribuidas expresamente a otros órganos. Asimismo, el Servicio de Recursos Humanos gestionará los llamamientos, contrataciones y cualquier otra incidencia relacionada con el proceso de contratación.

**4. artikulua. Hautaketa prozesuen kudeaketa.**

Giza Baliabideen Zerbitzua da unitate eskumenduna arautegi honetan ezarritako hautaketa prozesuak tramitatzeko, gai honetan beste organo batzuei berariaz esleitutako eskumenak galarazi gabe. Giza Baliabideen Zerbitzuak kudeatuko ditu, halaber, deiak, kontratazioak eta kontratazio prozesuarekin lotutako beste edozein gorabehera.

**Artículo 5. Incompatibilidades.**

El Profesorado Contratado Doctor tendrá el régimen de incompatibilidades establecido en la Ley 53/84, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas y en su normativa de desarrollo.

**5. artikulua. Bateraezintasunak.**

Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta berau garatzen duten arauek ezarritako bateraezintasunak izango dituzte kontratupeko irakasle doktoreek.

## CAPÍTULO II
## *Convocatorias*

## II. KAPITULUA
## *Deialdiak*

**Artículo 6. Órgano convocante.**

La selección de Profesores Contratados Doctores se hará mediante concurso público convocado por resolución del órgano competente en materia de profesorado.

**6. artikulua. Deialdia egiten duen organoa.**

Irakasleen gaietan eskumena duen organoaren ebazpen baten bidez deitutako lehiaketa publikoaren bidez hautatuko dituzte kontratupeko irakasle doktoreak.

**Artículo 7. Publicidad de las convocatorias.**

1. Las convocatorias de los concursos serán publicadas en la página web de la Universidad Pública de Navarra y en el Boletín Oficial de

**7. artikulua. Deialdien publizitatea.**

1. Lehiaketen deialdiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Navarra.

2. El Comité de Empresa será informado y escuchado con antelación a la elaboración del contenido de las convocatorias ordinarias de contratación.

2. Kontratatzeko ohiko deialdien edukia finkatu baino lehen Enpresa batzordeari informazioa eman eta entzungo zaio, aldez aurretik.

3 Las convocatorias serán comunicadas con antelación al Consejo de Universidades para su difusión en todas ellas, en los términos que se recogen en el artículo 48 de Ley Orgánica de Universidades.

3. Halaber, Unibertsitateen Kontseiluari deialdien berri emango zaio aldez aurretik, haietan guztietan jakinarazteko, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoko 48 artikuluak ezartzen duen bezala.

**Artículo 8. Contenido de las convocatorias.**

Las convocatorias y sus bases se regirán por el presente Reglamento y, en lo no previsto, por la normativa general en materia de procedimiento administrativo.

En dichas convocatorias se hará constar al menos:

a) Número y categoría de las plazas convocadas, con indicación del régimen de dedicación, del Departamento y Área de conocimiento al que se adscriben junto con el perfil docente e investigador.

b) Requisitos y condiciones que deben reunir los aspirantes para su desempeño.

c) Modelo de solicitud de participación y documentación a aportar.

d) Lugares y plazo de presentación de solicitudes.

e) Órgano al que deben dirigirse las solicitudes.

f) Plazos, términos y fases de desarrollo del concurso.

g) Recursos que pueden interponerse.

h) Baremo que se aplica.

i) La composición de la Comisión de Contratación.

**8. artikulua. Deialdien edukia.**

Arautegi honek arautuko ditu deialdiak eta beren oinarriak, eta arautegiak ezer ezartzen ez badu, administrazio prozedurako gaiei buruzko araudi orokorrak.

Deialdiotan honako hau jasoko da gutxienez:

a) Deialdiko lanpostu kopurua eta maila, lanpostuen arduraldi-mota, eta atxikita dauden saila eta arloa, irakaskuntza eta ikerketa profilarekin batera.

b) Izangaiek lanpostuan aritzeko bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak.

c) Parte hartzeko eskaera-eredua eta aurkeztu beharreko agiriak.

d) Eskaerak aurkezteko epea eta tokiak.

e) Eskaerak zein organori zuzendu behar zaizkion.

f) Lehiaketaren epeak, bukaera-datak eta garapen-aldiak,

g) Zilegi diren errekurtsoak.

h) Aplikatu beharreko baremoa.

i) Kontratazio Batzordearen osaera.

## CAPÍTULO III

### *Solicitudes*

**Artículo 9. Requisitos de participación.**

1. Para ser admitidos a participar en los concursos que convoque la Universidad Pública de Navarra, los aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de 16 años y no haber cumplido la edad de jubilación.

b) Estar acreditado para las plazas de Profesor Contratado Doctor o para cualquier cuerpo docente universitario por la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación.

c) No padecer enfermedad ni estar afectado por limitación física o psíquica que impida el desempeño de las funciones correspondientes a las plazas convocadas.

d) No haber sido separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas ni hallarse inhabilitado para el desempeño de funciones públicas o ejercer cargos o funciones declaradas incompatibles con la docencia. En el caso de los aspirantes que no posean la nacionalidad española, el cumplimiento de este requisito comportará no hallarse sometido a sanción disciplinaria o condena penal que impida en su Estado el acceso a la función pública.

e) Todos los aspirantes deberán acreditar los conocimientos idiomáticos que la plaza objeto de concurso requiera. En el caso de los aspirantes que no posean la nacionalidad española, el nivel de conocimiento del idioma castellano necesario para el desempeño de su labor docente será estimado por la Comisión encargada de resolver el concurso.

2. El cumplimiento de los requisitos previstos en cada convocatoria se entenderá referido a la fecha de finalización del plazo de presentación de

## III. KAPITULUA

### *Eskaerak*

**9. artikulua. Parte hartzeko baldintzak.**

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak deitzen dituen lehiaketetan parte hartzera onetsiak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 16 urte baino gehiago izatea, eta erretiro-adina betea ez izatea.

b) Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionala egiaztatuta egotea kontratupeko irakasle doktoreen lanpostuetarako edo unibertsitateko edozein irakaskidegotako lanpostuetarako.

c) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

d) Ez egotea bereizirik edozein administrazio publikotako zerbitzutik diziplinako espedientea dela kausa, ez egotea funtzio publikoak betetzeko ezgaitua, edo irakaskuntzarekin bateraezinak diren karguak edo funtzioak betetzea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaien kasuan, baldintza hau betetzeko beharrezkoa izango da norberaren Estatuan funtzio publikora sartzea galarazten duten diziplina-zehapen edo kondena penalik ez edukitzea.

e) Izangai guztiek egiaztatu behar dituzte lehiaketako lanposturako eskatzen diren hizkuntza ezagupenak. Izangaiek espainiar nazionalitaterik ez badaukate, lehiaketa ebatziko duen batzordeak erabakiko du beren irakaslana betetzeko beharrezkoa den jakintza-maila gaztelaniaz.

2. Deialdi bakoitzeko betekizunak dagozkion oinarrietan ezarritako eskaerak aurkezteko epearen barruan eta kontratuak irauten duen bitartean bete

solicitudes fijado en las respectivas bases, y mantenerse durante la vigencia del contrato.

**Artículo 10. Solicitudes de participación.**

1. Los interesados en tomar parte en los concursos formalizarán su solicitud mediante instancia dirigida al Servicio de Recursos Humanos de la Universidad Pública de Navarra.

2. La presentación de las solicitudes se realizará en la forma establecida en las bases de la convocatoria, conforme a lo dispuesto en la normativa general en materia de procedimiento administrativo común.

3. La presentación de solicitudes estará sujeta al pago de las tasas, conforme a la normativa foral de precios y tasas públicos.

4. El plazo para presentar las solicitudes no será inferior a 10 días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria.

**Artículo 11. Documentación.**

1. A cada solicitud de participación deberá acompañarse:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o Pasaporte.

b) Fotocopia del título de Doctor.

c) Fotocopia del documento que acredite la evaluación positiva de su actividad expedido por la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación.

d) Resguardo acreditativo del abono de la tasa de acceso.

e) En su caso, certificación oficial acreditativa del nivel de conocimiento idiomático requerido.

2. La Comisión de Contratación podrá requerir en todo momento del proceso a los aspirantes para que acrediten la veracidad de los documentos aportados

.

behar dira.

**10. artikulua. Parte hartzeko eskaerak.**

1. Parte hartu nahi duten guztiek eskabidea bete eta aurkeztu beharko dute, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza Baliabideen Zerbitzura zuzendu.

2. Eskaerak deialdiko oinarrietan ezarritako moduan aurkeztuko dira, administrazio-prozedura erkideari dagozkion gaiei buruzko araudi orokorrak ezarritakoaren arabera.

3. Eskabideak aurkezteko tasak ordaindu beharko dira tasa eta salneurri publikoei buruzko foru araudiak ezartzen duenarekin bat etorriz.

4. Eskaerak aurkezteko epea ez da 10 egun baliodun baino laburragoa izango, deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**11. artikulua. Dokumentazioa.**

1. Eskaera bakoitzari hauek gehitu behar zaizkio:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.

b) Doktore tituluaren fotokopia.

c) Kalitatea Egiaztatu eta Ebaluatzeko Agentzia Nazionalak emandako bere jardueraren ebaluazio positiboaren egiaztagiriaren fotokopia.

d) Ordaindu beharreko tasa ordaindu delako egiaztagiria.

e) Beharrezkoa bada, eskatutako hizkuntza-jakintzaren maila egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.

2. Kontratazio Batzordeak prozesuaren edozein unetan eskatzen ahalko die izangaiei ekarri dituzten agirien benetakotasuna egiazta dezaten.

**Artículo 12. Admisión de los aspirantes.**

1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, en el plazo máximo de 10 días, el órgano competente en materia de profesorado hará pública en la web de la Universidad Pública de Navarra la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos en cada una de las plazas convocadas, con indicación en este último caso de la causa de exclusión. Si no hubiera aspirantes excluidos se aprobará directamente la lista definitiva.

2. Sin perjuicio de la exclusión provisional por no presentar los documentos que justifiquen los requisitos de participación, serán motivos de exclusión insubsanables presentar la solicitud fuera del plazo establecido, no poseer los requisitos que deben reunirse para ocupar la plaza a la que se concurse o no abonar la tasa de acceso.

3. Los aspirantes excluidos y omitidos, dentro de los 10 días hábiles siguientes al de la publicación de la lista provisional, podrán formular reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos en que hubieran incurrido.

4. Transcurrido el plazo de subsanación de solicitudes, se procederá a la publicación en la web de la Universidad Pública de Navarra de la lista definitiva de aspirantes admitidos y excluidos al concurso.

5. La inclusión de aspirantes en las relaciones de admitidos al concurso no supone en ningún caso el reconocimiento por parte de la Universidad de que los mismos reúnen los requisitos generales o particulares exigidos en las bases de la convocatoria. La acreditación y verificación de éstos tendrá lugar para los aspirantes que sean llamados a la contratación, que deberán presentar la documentación acreditativa en el momento de la firma del contrato.

6. Cuando, finalizado el plazo señalado, no se hubiesen presentado solicitudes, no hubiese

**12. artikulua. Izangaiak onartzea.**

1. Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, gehienez ere 10 eguneko epean, irakasleen gaietan eskumena duen organoak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Unibertsitate Publikoko web ofizialean, deitutako lanpostu bakoitzeko lehiaketan onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda, eta azken kasu honetan baztertzearen arrazoiak azalduko dira. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

2. Parte hartzeko baldintzak justifikatzen dituzten dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, ezin zuzendu daitezkeen baztertzeko arrazoiak izango dira eskaera epez kanpo aurkeztea, lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea edo sarbide tasak ez ordaintzea.

3. Baztertu edo aipatu ez diren izangaiek, behin-behineko zerrenda argitaratu eta ondorengo 10 egun baliodunetan, erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte, egindako akatsak zuzentzeko.

4. Eskaerak osatzeko eta zuzentzeko epea bukaturik, Unibertsitateko web-orrialdean argitaratuko da lehiaketan onarturiko eta bazterturiko izangaien behin betiko zerrenda.

5. Lehiaketako onartuen zerrendak egoteak ez du esan nahi, inola ere, Unibertsitateak aitortzen duenik izangaiek deialdiko oinarrietan eskatzen diren baldintza orokorrak edo partikularrak betetzen dituztela. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

6. Epea bukaturik ez bada eskaerarik aurkeztu, izangai onarturik ez bada edo izangaiek lehiatzeari

aspirantes admitidos o los aspirantes hubiesen renunciado al concurso, el órgano competente en materia de profesorado lo comunicará al Departamento y se declarará desierta la plaza por este motivo.

uko egiten badiote, irakasleen gaietan eskudun den organoak Sailari jakinaraziko dio, eta arrazoi horregatik lanpostua hutsik geratzen dela aldarrikatuko da.

## CAPÍTULO IV

***Proceso selectivo y propuesta de contratación***

## IV. KAPITULUA

***Hautaketa-prozesua eta kontratazio-proposamena***

**Artículo 13. Comisión de Contratación.**

1. Las Comisiones de Contratación que han de resolver los concursos estarán constituidas por tres profesores y sus respectivos suplentes, pertenecientes a un cuerpo igual o superior al de la plaza objeto de concurso con vinculación permanente, designados de la siguiente manera:

a) Un titular, que presidirá la Comisión de Contratación, y dos suplentes, todos ellos Catedráticos de Universidad, designados por el Consejo de Gobierno a propuesta del órgano competente en materia de profesorado, debiendo contar todos ellos con un mínimo de tres evaluaciones positivas de su actividad investigadora, estando la última vigente

b) Un titular y dos suplentes, designados por el Consejo de Departamento, debiendo contar todos ellos con un mínimo de dos evaluaciones positivas de su actividad investigadora, estando la última vigente.

c) Un titular y dos suplentes, designados, mediante sorteo por el Consejo de Gobierno de entre diez profesores propuestos por el Consejo de Departamento, que no tengan vinculación contractual con la Universidad Pública de Navarra, y debiendo contar todos ellos con un mínimo de dos

**13. artikulua. Kontratazio Batzordea.**

1. Bete beharreko lanpostuaren irakaskidegokoak edo goragoko batekoak diren eta lotura iraunkorra duten hiru irakasle doktorek eta haien ordezkoek osatuko dituzte lehiaketak ebatzi behar dituzten kontratazio batzordeak, eta honela izendatuko dira:

a) Titular bat, Kontratazio Batzordeko buru izango dena, eta bi ordezko, Unibertsitateko katedradunak biak, irakasleen gaietan eskuduna den organoak proposatu eta Gobernu Kontseiluak izendatuak. Horiek denek ikerketa-jardueraren hiru ebaluazio positibo izan behar dituzte gutxienez, eta indarrean egon behar du azken ebaluazioak.

b) Titular bat eta bi ordezko, Saileko Kontseiluak izendatuak. Horiek denek ikerketa-jardueraren bi ebaluazio positibo izan behar dituzte gutxienez, eta indarrean egon behar du azken ebaluazioak.

c) Titular bat eta bi ordezko, Saileko Kontseiluak proposatutako hamar irakasleen artetik Gobernu Kontseiluak zozketa bidez izendatuak. Horiek denek ezin dute kontratu bidezko loturarik izan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, ikerketa-jardueraren bi ebaluazio positibo izan behar dituzte gutxienez, eta

evaluaciones positivas de su actividad investigadora, estando la última vigente.

A efectos de lo establecido en el presente apartado se considerará vigente la última evaluación positiva de la actividad investigadora (sexenios) siempre cuando no hubiera transcurrido más de ocho años desde la fecha de su reconocimiento.

Todos los miembros de la Comisión de Contratación serán nombrados por el Rector, quien designará a su Secretario.

2. La composición de las Comisiones de Contratación deberá ajustarse a los principios de imparcialidad y profesionalidad de sus miembros. Los miembros de las Comisiones de Contratación deberán tener reconocida experiencia docente e investigadora y pertenecer al área de conocimiento a la que corresponda la plaza o a otra afín, de conformidad con la regulación aprobada por la Universidad Pública de Navarra al respecto.

3. Las Comisiones de Contratación deberán tener una composición equilibrada entre hombres y mujeres, salvo que no fuera posible por razones fundadas y objetivas debidamente motivadas, y que deberán acreditarse mediante la emisión del informe correspondiente.

4. La Comisión de Contratación se regirá por lo dispuesto en la legislación básica que regule el funcionamiento de los órganos colegiados de las distintas administraciones públicas.

Los miembros de la Comisión se abstendrán de intervenir cuando se dé alguna de las causas legales de abstención o recusación.

indarrean egon behar du azken ebaluazioak.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ikerketa-jardueraren azkeneko ebaluazio positiboa (seiurtekoak) indarrean dagoela ulertuko da, baldin eta ebaluazioa ontzat eman zenetik zortzi urte baino gehiago pasatu ez badira.

Kontratazio Batzordeko kide guztiak errektoreak izendatuko ditu, baita idazkaria ere.

2. Kontratazio batzordeetako kideek inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak bete behar dituzte. Kontratazio batzordeetako kideek aitortua izan behar dute irakasteko eta ikertzeko esperientzia, eta lanpostuaren jakintza-arlokoak edo haren antzeko jakintza-arlo batekoak izan behar dute, alderdi horri dagokionez Nafarroako Unibertsitate Publikoak onetsitako araudiaren arabera.

3. Kontratazio batzordeek gizonen eta emakumeen arteko osaera orekatua izan behar dute, salbu eta behar bezala arrazoitutako zio oinarritu eta objektiboengatik posible ez bada (kasu horretan, dagokion txostenaren bidez egiaztatu beharko dira).

4. Administrazio publikoetako erakunde kolegiatuen funtzionamendua arautzen duen oinarrizko legeriak arautuko du Kontratazio Batzordea.

Batzordekideek ez dute esku hartuko abstentziorako edo errekusaziorako legezko arrazoiren bat dagoenean.

**Artículo 14. Constitución de la Comisión de Contratación.**

El Presidente de la Comisión de Contratación, previa consulta con el resto de sus miembros, notificará a los interesados, con una antelación mínima de quince días naturales, la siguiente información:

1. Lugar, fecha y hora de la constitución de la Comisión de Contratación, que deberá hacerse en un plazo máximo de tres meses a partir de lo señalado en el artículo 12.4 de este Reglamento. En el acto de constitución, la Comisión de Contratación fijará y hará públicos los criterios que utilizará en la valoración de los concursantes, conforme al baremo de contratación que se recoge en el Anexo I de este Reglamento.

2. El acto de presentación de los aspirantes admitidos a participar en el concurso. En dicho acto, la Comisión de Contratación recibirá de los candidatos por triplicado un programa detallado de una materia del área de la plaza objeto de concurso que incluya temario, bibliografía, objetivos y metodología docente, así como el currículum vitae, los trabajos de investigación realizados y un proyecto de la actividad investigadora que pretende realizar el aspirante. Se incluirá la documentación acreditativa de cuantos méritos de carácter docente o investigador sean alegados por cada candidato, no pudiendo ser valorado ningún mérito que no haya sido suficientemente acreditado.

Asimismo, la Comisión de Contratación convocará a los aspirantes para la primera prueba. La convocatoria fijará el lugar, día y hora en que tendrá lugar dicha prueba. Si hubiera más de un concursante se sorteará el orden de actuación. Finalmente, publicará la convocatoria de la prueba y el orden de realización de la misma.

**14. artikulua. Kontratazio Batzordea eratzea.**

Kontratazio Batzordeko buruak, gainerako batzordekideekin kontsultatu eta gero, informazio hau jakinaraziko die interesdunei, gutxienez ere hamabost egun naturaleko aurrerapenaz:

1. Kontratazio Batzordea non, noiz eta zer ordutan eratuko den. Gehienez ere hiru hilabeteko epean eratu behar da, araudi honetako 12.4 artikuluan ezarritako epetik kontatzen hasita. Eraketa-ekitaldian, Kontratazio Batzordeak lehiatzaileak balioesteko kontuan hartuko dituen irizpideak ezarri eta jendaurrean jarriko ditu. Irizpideak araudi honen I. eranskinean jasotako kontratazio-baremoaren araberakoak izango dira.

2. Lehiaketan parte hartzeko onartu diren izangaiak aurkezteko ekitaldia. Ekitaldi horretan, lehiaketara atera den lanpostuaren jakintza-arloko irakasgai baten programa zehatza emango diote izangaiek Kontratazio Batzordeari (hiru kopia, hain zuzen). Honako hauek jaso behar ditu programak: gaitegia, bibliografia, helburuak eta irakasteko metodologia; horretaz gainera, izangaiaren curriculum vitaea, orain arte egindako ikerketak eta hemendik aurrera egin nahi dituen ikerketen proiektua. Izangaiek alegatutako irakaskuntzako eta ikerketako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu behar dituzte; merezimenduren bat behar bezala egiaztatzen ez bada, ez da aintzat hartuko.

Kontratazio Batzordeak, halaber, lehen probarako dei egingo die izangaiei. Deialdiak zehaztuko du proba zer toki, egun eta ordutan egingo den. Lehiatzaile bat baino gehiago badira, proba egiteko hurrenkera zozketatu egingo da. Azkenik, probarako deialdia eta proba egiteko hurrenkera argitaratuko ditu Kontratazio Batzordeak.

**Artículo 15. Procedimiento de valoración y relación de aspirantes.**

1. El procedimiento de selección de los concursantes constará de dos pruebas:

a) La primera prueba consistirá en la exposición oral por el candidato ante la Comisión de Contratación, durante un tiempo máximo de una hora, y posterior debate con la misma durante un tiempo máximo de una hora, de su currículum vitae, del proyecto docente y del proyecto investigador que ha presentado.

Finalizada la primera prueba, cada miembro de la Comisión de Contratación entregará al Presidente un informe razonado valorando el currículum y los proyectos docente e investigador presentados por cada uno de los candidatos, con asignación de puntuación numérica. La Comisión de Contratación aprobará una relación ordenada de los concursantes que han igualado o superado la puntuación mínima exigida y pasan a la segunda prueba. Con la publicación de los resultados de la primera prueba, la Comisión de Contratación hará público el lugar, día y hora de realización de la segunda prueba.

b) La segunda prueba consistirá en la exposición oral por el candidato ante la Comisión de Contratación, durante un tiempo máximo de una hora, y posterior debate con la misma durante un tiempo máximo de una hora, de un tema presentado por el candidato en el proyecto docente y elegido por él. La Comisión de Contratación valorará, de forma individualizada y motivada, a cada candidato con asignación de puntuación numérica.

2. Con la suma de las puntuaciones de las dos pruebas, la Comisión establecerá una relación ordenada de las calificaciones obtenidas por cada candidato en aplicación del baremo. En caso de empate los miembros de la Comisión de Contratación realizarán una votación para decidir el

**15. artikulua. Balorazio prozedura eta izangaien zerrenda.**

1. Izangaiak hautatzeko prozesuak bi aldi hauek edukiko ditu:

a) Lehen proban, gehienez ere ordubete iraungo duen ahozko azalpena egingo da Kontratazio Batzordearen aurrean, eta gehienez ere ordubete iraungo duen eztabaida izango da berarekin honako hauei buruz: izangaiaren curriculum vitaea, irakaskuntza proiektua eta aurkeztutako ikerketa-proiektua.

Lehen proba bukatuta, Kontratazio Batzordeko kide bakoitzak Batzordeko buruari txosten arrazoitu bat emango dio, izangai bakoitzak azaldu dituen curriculum vitaea, eta irakaskuntza eta ikerketa-proiektuak balioesteko, eta zenbakizko puntuak emango zaio. Eskatutako gutxieneko puntuazioa edo handiagoa lortu duten eta bigarren proba egingo duten lehiatzaileen zerrenda ordenatua onetsiko du Kontratazio Batzordeak. Lehen probako emaitzak argitaratu ondoren, Kontratazio Batzordeak argitaratuko du noiz, non eta zer ordutan egingo den bigarren proba.

b) Bigarren proban, gehienez ere ordubete iraungo duen ahozko azalpena egingo da Kontratazio Batzordearen aurrean, eta gehienez ere ordubete iraungo duen eztabaida izango da berarekin, izangaiak bere irakaskuntza proiektuan aurkeztutako eta berak hautatutako gai bati buruz. Kontratazio Batzordeak izangai bakoitzaren balioespen arrazoitua egingo du, eta zenbakizko puntuak esleituko dizkio.

2. Bi probetako puntuazioak batu eta gero, lehiatzaileek baremoa aplikatuta lortu dituzten kalifikazioen zerrenda ordenatu bat egingo du Batzordeak. Berdinketarik balego, Kontratazio Batzordeko kideek bozketa bat egingo dute hurrenkera erabakitzeko; bozketa honetan

orden de la relación; en caso de empate en esta votación dirimirá el voto de calidad del Presidente.

**Artículo 16. Propuesta de contratación.**

1. En el plazo máximo de 7 días hábiles desde el final de la segunda prueba, la Comisión de Contratación publicará en la web de la Universidad Pública de Navarra la relación ordenada de candidatos que han superado el proceso selectivo y la propuesta de contratación, que trasladará al órgano competente en materia de profesorado. Dicha publicación servirá a todos los efectos de notificación a los interesados

2. La Comisión de Contratación no podrá proponer más candidatos que el número de dotaciones de las plazas objeto del concurso, pero sí un número inferior a ellas. Igualmente, la Comisión de Contratación podrá proponer que se declare desierta la plaza cuando en aplicación del baremo especificado de la plaza ninguno de los candidatos haya obtenido la puntuación mínima exigida.

3. La actuación de la Comisión de Contratación termina con la formulación de la propuesta de contratación.

## CAPÍTULO V

## *Reclamaciones contra la propuesta de contratación*

**Artículo 17. Comisión de Reclamaciones.**

1. Los interesados podrán formular reclamaciones ante el Rector de la Universidad Pública de Navarra contra la propuesta de contratación de la Comisión de Contratación en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación.

berdinketa balego, batzordeburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

**16. artikulua. Kontratazio proposamena.**

1. Bigarren proba egiten denetik 7 egun baliodunko epean gehienez ere, Kontratazio Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-ean argitaratuko du hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda ordenatua eta kontratazio-proposamena, eta proposamena jakinaraziko dio irakasleen gaietan eskumena duen organoari. Argitaratze horrek, ondorio guztietarako, interesdunei egiten zaien jakinarazpenaren balioa edukiko du.

2. Ez da zilegi Kontratazio Batzordeak lehiaketaren xede den lanpostu-kopurua baino izangai gehiago proposatzea, baina bai ordea txikiagoa den kopurua. Halaber, zilegi da Kontratazio Batzordeak lanpostua hutsik geratzeko proposamena egitea, lanpostuaren baremo espezifikatua aplikatu eta izangaietako inork ez duenean lortzen eskatzen den gutxieneko puntuazioa.

3. Kontratazio proposamena eginez emango zaio amaiera Kontratazio Batzordearen jarduerari.

## V. KAPITULUA

## *Kontratazio-proposamenaren aurkako erreklamazioak*

**17. artikulua. Erreklamazio Batzordea.**

1. Interesdunek zilegi dute erreklamazioa aurkeztea Kontratazio Batzordearen kontratazio proposamenaren aurka Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hamar egun baliodunko epean proposamena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2. Las reclamaciones contra la propuesta de contratación serán valoradas por una Comisión de Reclamaciones formada por siete Catedráticos de Universidad de diversos ámbitos de conocimiento, con amplia experiencia docente, investigadora y de gestión, elegidos por el Consejo de Gobierno, con designación expresa de presidente y secretario. Su mandato será de cuatro años y se renovará parcialmente cada dos años.

2. Unibertsitateko zazpi katedradunek osatutako erreklamazio batzorde batek balioetsiko ditu kontratazio proposamenaren aurkako erreklamazioak. Gobernu Kontseiluak aukeratuko ditu katedradun horiek, jakintza-arlo batekoak baino gehiagotakoak izan behar dute, eta esperientzia zabala eduki behar dute irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan. Erreklamazio Batzordeko burua eta idazkaria ere espresuki izendatuko ditu. Erreklamazio Batzordearen agintaldia lau urtekoa izango da, eta bi urtetik behin berrituko da batzordea partzialki.

La Comisión de Reclamaciones valorará los aspectos puramente procedimentales del concurso y velará porque se haya garantizado en todo momento la igualdad de oportunidades de los aspirantes, y el respeto a los principios de mérito y capacidad.

Erreklamazio Batzordeak lehiaketaren prozedurari lotutako alderdiak baino ez ditu balioetsiko, eta izangaien aukera-berdintasuna eta merezimendu eta gaitasun printzipioekiko errespetua une oro bermatzen direla zainduko du.

La Comisión de Reclamaciones en ningún caso podrá sustituir la valoración de fondo realizada por la Comisión de Contratación sobre la idoneidad de los aspirantes.

Erreklamazio Batzordeak ezingo du inola ere ordezkatu Kontratazio Batzordeak izangaien egokitasunari buruz egindako balorazio sakona.

3. Recibida la reclamación contra la propuesta de contratación, de estimarse que la Comisión de Reclamaciones es competente, el Rector de la Universidad Pública de Navarra dictará resolución admitiendo a trámite la reclamación y suspendiendo el proceso selectivo hasta la resolución definitiva de la misma.

Será causa de inadmisión de la reclamación la falta de competencia de la Comisión de Reclamaciones.

3. Kontratazio proposamenaren aurkako erreklamaziorik jasoz gero, eta betiere Erreklamazio Batzordeak nahikoa eskumen duela irizten bazaio, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak ebazpen bat emango du erreklamazioa tramitera onartzeko eta hautaketa-prozesua erreklamazioa behin betiko ebazten den arte eteteko.

Aitzitik, Erreklamazio Batzordeak nahikoa eskumen ez badu, erreklamazioa ez da onartuko.

4. Admitida a trámite la reclamación, el Servicio de Recursos Humanos trasladará a todos los candidatos las reclamaciones admitidas a trámite, concediéndoles un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente al de su recepción,

4. Erreklamazioren bat tramitera onartuz gero, Giza Baliabideen Zerbitzuak tramitera onartu diren erreklamazioak helaraziko dizkie izangai guztiei, eta hamar egun baliodunoko epea emango die izangaiek nahi dutena alega dezaten erreklamazioak

para que aleguen cuanto estimen procedente. Así mismo, remitirá la reclamación a la Comisión de Contratación para que emita el correspondiente informe.

5. La Comisión de Reclamaciones, examinada toda la documentación, podrá adoptar en el plazo máximo de tres meses a contar desde la fecha de presentación de la reclamación, alguna de las siguientes decisiones:

a) De considerar que no existe vulneración de alguno de los principios de igualdad, mérito o capacidad, ratificar directamente la propuesta de la Comisión de Contratación.

b) De observarse error de cálculo evidente y manifiesto en la suma de las puntuaciones del baremo, rectificar el error advertido en la propuesta de la Comisión de Contratación con todos los efectos que ello comporte en cuanto a alteración del orden de los candidatos propuesto por la Comisión de Contratación.

c) De apreciarse algún defecto procedimental que hubiese producido indefensión para la parte reclamante, proponer la retroacción del procedimiento selectivo al momento en que se hubiera cometido el referido quebrantamiento de forma.

d) De considerar que existe vulneración de los principios de igualdad, mérito y capacidad, la Comisión de Reclamaciones no ratificará la propuesta de la Comisión de Contratación.

6. La Comisión de Reclamaciones adoptará sus acuerdos por mayoría de sus miembros y, en caso de empate, será dirimente el voto del Presidente. La Comisión podrá solicitar para adoptar su decisión informe jurídico del Servicio Jurídico de la Universidad.

7. El acuerdo de la Comisión de Reclamaciones resolviendo sobre la reclamación presentada será

jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Kontratazio Batzordeari ere bidaliko dizkio tramitera onartu diren erreklamazioak, haiei buruzko txostena egin dezan.

5. Erreklamazio Batzordeko kideek dokumentazioa aztertu eta erabaki hauetako bat har lezakete, gehienez ere hiru hilabeteko epean erreklamazioa aurkeztu den egunetik kontatzen hasita.

a) Baldin eta uste badu berdintasun, merezimendu edo gaitasun printzipiorik ez dela urratu, Kontratazio Batzordearen proposamena zuzenean berrestea.

b) Baldin eta uste badu baremoko puntuazioen baturan kalkulu akats ageriko eta nabarmenen bat egin dela, atzemandako akatsa zuzentzea Kontratazio Batzordearen proposamenean. Horrek ondorioak izango ditu Kontratazio Batzordearen proposamenean, aldatu egingo baitu izangaien hurrenkera.

c) Baldin eta uste badu prozedura-akatsen bat izan dela eta horrek babesik gabe utzi duela erreklamazioa jarri duen alderdia, hautaketa-prozedura formazko akatsa egin den unera eramatea atzera.

d) Baldin eta uste badu berdintasun, merezimendu edo gaitasun printzipioren bat urratu dela, Erreklamazio Batzordeak ez du berretsiko Kontratazio Batzordearen proposamena.

6. Erreklamazio Batzordeak bere kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta, bozketan berdinketarik badago, erabakigarria izango da batzordeburuaren botoa. Erabakiak hartzeko, Erreklamazio Batzordeak aukera izango du Unibertsitatearen Zerbitzu Juridikoaren txosten juridikoa eskatzeko.

7. Erreklamazio Batzordeak erreklamazioari buruz hartzen duen erabakia loteslea izango da

vinculante para el Rector, que dictará la resolución en congruencia con la propuesta de la Comisión pudiendo, en su caso, declarar la plaza desierta.

Dicha resolución agota la vía administrativa y contra ella se podrá interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Navarra.

Transcurrido el plazo de tres meses sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimada la reclamación.

**CAPÍTULO VI**

***Finalización del proceso selectivo***

**Artículo 18. Propuesta definitiva de contratación.**

La resolución del Rector que contenga la propuesta definitiva de contratación pone fin al proceso selectivo, y se publicará en la web de la Universidad Pública de Navarra. Esta publicación servirá a todos los efectos de notificación a los interesados

Dicha resolución agota la vía administrativa, y contra ella podrá presentarse recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Navarra.

**CAPÍTULO VII**

***Formalización y firma de los contratos***

**Artículo 19. Documentación.**

1. En el plazo de cinco días hábiles a partir del siguiente a la fecha de publicación de la propuesta definitiva de contratación, los adjudicatarios de las plazas deberán presentar en el Servicio de Recursos Humanos la documentación que a continuación se detalla, a fin de formalizar el

erréktorearentzat. Errektoreak ebazpen bat emango du Erreklamazio Batzordearen proposamenarekin bat etorriz, eta zilegi du lanpostua hutsik utzi dela deklaratzea.

Ebazpen horrek administrazio bidea agortuko du, eta haren aurka zilegi da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea bi hilabeteko epean Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, erreklamazioari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

**VI. KAPITULUA**

***Hautaketa prozesuaren amaiera***

**18. artikulua. Behin betiko kontratazio-proposamena.**

Behin betiko kontratazio-proposamena daukan errektorearen ebazpenak hautaketa-prozesua amaitzen du, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko web-ean jarriko da. Argitaratze horrek, ondorio guztietarako, interesdunei egiten zaien jakinarazpenaren balioa edukiko du.

Ebazpen horrek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka zilegi da administrazioarekiko auzi errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

**VII. KAPITULUA**

***Kontratuak gauzatzea eta izenpetzea***

**19. artikulua. Dokumentazioa.**

1. Bost egun balioduneko epean, behin betiko kontratazio proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, lanpostua eskuratu dutenek ondoren zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Giza Baliabideen Atalean, dagokion kontratua formalizatu ahal izateko:

correspondiente contrato:

a) Fotocopia de la cartilla de afiliación al Régimen General de la Seguridad Social, en su caso.

b) Datos bancarios para el ingreso de la nómina.

c) Declaración de no estar afectado de incompatibilidad.

2. Perderán su derecho de contratación quienes dentro del plazo fijado, y salvo causas de fuerza mayor, no presenten la documentación, o quienes, del examen de la misma se dedujera que carecen de alguno de los requisitos exigidos para ocupar la plaza.

**Artículo 20. Formalización del contrato.**

1. El contrato laboral que se derive de esta normativa y de las correspondientes convocatorias estará sujetos a lo establecido en los artículos 48 y siguientes de la Ley Orgánica de Universidades.

2. Los contratos se formalizarán por escrito en los modelos correspondientes. La firma del contrato tiene carácter personal e intransferible, y se efectuará en el Servicio de Recursos Humanos de la Universidad Pública de Navarra.

3. El contrato se firmará con carácter previo a la incorporación a las tareas en el plazo máximo de 10 días naturales, contados desde el siguiente al de la publicación de la resolución de la plaza.

4. El contratado deberá presentarse ante el Director del Departamento correspondiente e incorporarse a las tareas en la fecha del inicio indicada en el contrato. De no incorporarse en la fecha de inicio del contrato sin causa justificada a juicio de la Universidad Pública de Navarra, el contrato quedará sin efecto anulándose todas las actuaciones.

5. En el caso de no producirse la firma del contrato o de no incorporarse el contratado a las tareas, en los respectivos plazos indicados en los párrafos anteriores, salvo caso de fuerza mayor, se entiende

a) Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliazio-txartelaren fotokopia, hala dagokionean.

b) Bankuko datuak nomina sartzeko.

c) Bateraezintasunik ez izatearen aldarrikapena.

2. Kontratatuak izateko eskubidea galduko dute ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoirik egon ezean, agiriak aurkezten ez dituztenek, edo eta agiriak azterturik, lanpostua betetzeko eskatzen den betebeharreko baldintzaren bat falta dutenek.

**20. artikulua. Kontratua gauzatzeko modua.**

1. Arautegi honen eta dagozkion deialdien ondorio den lan-kontratua Unibertsitateei buruzko Lege Organikoko 48 artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutenaren mende egongo dira.

2. Kontratuak idatziz egingo dira dagozkien ereduetan. Kontratua izenpetzea norberarena eta besterenganaezina da eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza Baliabideen Zerbitzuan egingo da.

3. Kontratua lanean hasi baino lehen izenpetuko da, 10 egun naturaleko gehieneko epean, lanpostuaren ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

4. Kontratatua dagokion saileko zuzendariaren aurrean aurkeztu beharko da, kontratuak ezartzen duen egunean lanari ekiteko. Kontratuak ezartzen duen egunean lanean hasten ez bada langilea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak uste badu horretarako bidezko arrazoirik ez dagoela, kontratua baliogabetuta geratuko da, eta jardun guztiak deuseztaturik.

5. Kontratua izenpetzen ez bada edo lan-kontratuduna lanean hasten ez bada, goiko lerroaldeetan aipatzen diren epeetan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, interesdunak lanpostuari uko

que el interesado renuncia a la plaza. En ambos casos se procederá al llamamiento del aspirante siguiente en orden de la relación de suplentes propuesta para dicha plaza por la Comisión de Contratación, el cual dispondrá del mismo plazo para formalizar el contrato.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.** Los Departamentos se harán cargo de las necesidades docentes derivadas de su plan docente, con independencia de los procedimientos de contratación en curso o por iniciar.

**Segunda.** Las referencias a personas, colectivos o cargos académicos figuran en la presente normativa en género masculino como género gramatical no marcado. Cuando proceda, será válida la cita de los preceptos correspondientes en género femenino.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Reglamento de contratación del personal docente e investigador de la Universidad Pública de Navarra, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 25 de febrero de 2009, en todo lo relativo a la regulación del profesorado contratado doctor.

## DISPOSICIÓN FINAL

**Única.** El presente Reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra

egiten diola ulertuko da. Bi kasuetan, Kontratazio Batzordeak lanpostu horretarako proposatzen duen ordezkoen zerrendan hurrengoa dagoen izangaiari deituko zaio, eta honek epe berdina edukiko du kontratua gauzatzeko.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**–Sailek hartuko dituzte bere gain beren irakaskuntza-planaren ondorio diren irakaskuntza-beharrak, hasteko edo bidean dauden kontratazio-prozedurak alde batera utzita.

**Bigarrena.**–Araudi honetan, gaztelaniazko testuan, genero maskulinoan agertzen diren pertsonak, kolektiboak edo kargu akademikoak, horrela agertzen dira markarik gabeko genero gramatikala delako. Hala dagokionean, genero femeninoa duten formak ere baliozkoak izango dira aginduen aipamenetan.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleak eta Ikertzaileak Kontratatzeko Arautegia, 2009ko otsailaren 25eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onetsitakoa, kontratupeko irakasle doktoreen arauketari dagokion guztian.

## AZKEN XEDAPENA

**Bakarra.**–Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman, eta biharamunean hartuko du indarra araudi honek.

## ANEXO I

***Baremo de contratación para las plazas de profesor contratado doctor***

El baremo para plazas de profesor contratado doctor será el siguiente:

1. Primera prueba oral: máximo 80 puntos. Quedarán excluidos los concursantes que no obtengan un mínimo de 40 puntos.

Atendiendo a la relación entre la actividad y el perfil de la plaza, se valorarán los siguientes elementos:

a) Actividades de investigación y publicaciones científicas acreditadas documentalmente (máximo 30 puntos).

b) Actividades docentes universitarias debidamente justificadas con el oportuno contrato y con informe de valoración de dicha actividad (máximo 20 puntos).

c) Proyecto docente (máximo 10 puntos).

d) Proyecto investigador (máximo 10 puntos).

e) Otros méritos (máximo 5 puntos). En este apartado se valorarán, a criterio de la Comisión, la actividad profesional no universitaria, idiomas, cursos de especialización recibidos, otras titulaciones, becas, premios y cualesquiera otros datos que el concursante aporte y acredite documentalmente.

f) Acreditación para Cuerpos Docentes Universitarios: 5 puntos.

Cada uno de los miembros de la Comisión valorará los méritos de los candidatos y la media aritmética de las puntuaciones otorgadas a cada concursante será la puntuación en esta prueba.

2. Segunda prueba oral: máximo 20 puntos. Como criterio general, se valorarán tanto los contenidos expuestos como la calidad docente de la propia exposición. Quedarán excluidos los

## I. ERANSKINA

***Kontratazio-baremoa kontratupeko irakasle doktoreen lanpostuetarako***

Hau izango da kontratupeko irakasle doktoreen lanpostuetarako baremoa:

1. Ahozko lehen proba: 80 puntu, gehienez ere. Gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten lehiatzaileak baztertuta geldituko dira.

Izangaien jardueraren eta lanpostuaren profilaren arteko lotura balioesteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Izangaiek egindako ikerketak eta argitalpen zientifikoak, dokumentu bidez egiaztatuak (30 puntu gehienez).

b) Unibertsitateko irakaslanak, kontratu bidez eta irakaskuntza-jarduera balioesten duen txostenaren bidez behar bezala egiaztatuak (20 puntu gehienez).

c) Irakaskuntza-proiektua (10 puntu gehienez).

d) Ikerketa-proiektua (10 puntu gehienez).

e) Beste merezimendu batzuk (5 puntu gehienez). Atal honetan, honako hauek balioetsiko dira, Kontratazio Batzordearen irizpidearen arabera: unibertsitatetik kanpo egindako lan profesionala, hizkuntzak, espezializazio ikastaroak, beste titulazio batzuk, bekak, sariak eta lehiakideak eman eta egiaztatutako beste edozein datu.

f) Unibertsitateko Irakaskidegoetarako egiaztapena: 5 puntu.

Kontratazio Batzordeko kide bakoitzak bere aldetik balioetsiko ditu izangaien merezimenduak, eta izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa izango da proba honen puntuazioa.

2. Ahozko bigarren proba: 20 puntu gehienez ere. Irizpide orokor gisa, bai azaldutako edukiak bai azalpenaren beraren irakaskuntza-kalitatea balioetsiko dira. Gutxienez 10 puntu lortzen ez

concursantes que no obtengan un mínimo de 10 puntos.

dituzten lehiatzaileak baztertuta geldituko dira.

Cada uno de los miembros de la Comisión valorará la exposición de los candidatos y la media aritmética de las puntuaciones otorgadas a cada concursante será la puntuación en esta prueba.

3. La puntuación final será la suma de las puntuaciones de las dos pruebas.

Batzordekide bakoitzak balioetsiko du izangaiak egindako azalpena, eta izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa izango da proba honen puntuazioa.

3. Azken puntuazioa bi probetako puntuazioen batura izango da.

Este texto consolidado no tiene valor jurídico.

Testu bateratu honek ez du balio juridikorik